

Bidaiarien sarrerak %8 gehitu dira 2003ko ekainean

Gaualdiak %3 gehitu dira, joan den ekainean.

Euskal AEko ostalaritza-establezimenduetan, 146.998 bidaiari-sarrera erregistratu dira 2003ko ekainean, Eustatek landutako datuen arabera. Zifra horiek erakusten dute %8ko hazkundera gertatu dela aurreko urteko hil beraren aldean, hots, 2002ko ekainean aldean, 10.000 bisitari baino gehiagoko hazkundera izan dela. Hiru herrialdeetan ez dute bilakaera bera izan bidaiarien sarrerek. Urte arteko gehikuntzarik handiena Gipuzkoan jazo da (%13); eta ondoren, Bizkaian (%9); baina Araban aldakuntza negatiboa izan da (%-7).

Estatuko bidaiarien sarrerak %12 gehitu dira Euskal AE osoan. Atzerriko bidaiarien sarrerak, berriz, %1 urritu dira. Estatutik datozen bidaiarien kopurua igo egin da bi herrialdetan, nahiz eta bietan berdin ez: %25 Gipuzkoan, eta %9 Bizkaian, eta Araban, berriz, %5 gutxitu da. Atzerrikoak gutxitu egin dira bi herrialdetan: Araban (%-11) eta Gipuzkoan (%-4), baina Bizkaian %9 gehitu dira.

Estatutik datozen bidaiarien artean, gehitu egin dira Kataluniatik, Asturiasetik, Aragoitik, Euskal AEtik eta Nafarroatik etorritakoak. Gutxitu egin dira, aitzitik, Andaluziatik eta Madrilatik etorriak. Atzerriko bidaiarien artean, gehitu egin dira Frantziatik, Alemaniatik, Italiatik eta Portugaletik etorritakoak, eta urritu, oster, AEB-Kanadetatik, Herbeheretatik eta Iberoamerikatik etorriak.

2003ko ekainean erregistraturiko gaualdiak 263.819 dira, hau da, aurreko urteko hil berean baino 8.000 gehiago; bestela esanda, %3 gehitu ziren. Gaualdiek urte arteko bilakaera ezberdina izan dute hiru lurraldeetan: igo egin dira Bizkaian (%4) eta Gipuzkoan (%9), baina jatsi egin dira Araban (%-11).

Euskal AE osorik hartuta, bidaiarien batez besteko egonaldiaren iraupena urritu egin da, 2002ko ekaineko 1,87 egunetatik joan den ekaineko 1,79 egunetara. Laburtze hori hiru lurraldeetan gertatu da: Araban (%-5), Bizkaian (%-5) eta Araban (%-4).

Plazen betetze-maila %4 jaitsi da Euskal AE osoan eta lurraldeka bilakaera hau izan du: Araban, %-24; Bizkaian, %-4; eta Gipuzkoan, %5.

Nekazalturismoa: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (%2) eta gaualdiak egonkortu

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 6.571 bidaiari-sarrera zenbatu dira joan den ekainean, aurreko urteko hil berean baino %2 gehiago: %9 ugaritu dira Gipuzkoan eta %4 Araban, eta %8 gutxitu dira Bizkaian. Euskal AE osoan izandako hazkundera Estatutik datozen bisitarien (%3) eragin dute, atzerrikoak %7 urritu baitira. Estatuko bisitariak gehitu egin dira Gipuzkoan (%11) eta Araban (%5). Atzerrikoak, aldiz, hiruretan urritu dira: Araban (%-3), Bizkaian (%-13) eta Gipuzkoan (%-4).

Euskadiko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 15.036 izan dira ekainean, 2002ko hil bereko ia kopuru bera. Urte arteko hazkunde-tasa positiboa izan da Gipuzkoan (%21), baina Bizkaian eta Araban %15 jaitsi da.

Batez besteko egonaldia, bidaiariko, ehuneko-puntu bat laburtu da Euskal AE osoan, 2002ko ekainaren aldean: Gipuzkoan %11 hazi da, baina jaitsi egin da Araban (%-18) eta Bizkaian (%-8).

Betetze-maila, azkenik, %7 jaitsi da Euskal AE osoan, Araban (%-25) eta Bizkaian (%-20) izandako jaitsierengatik; Gipuzkoan %12 gehitu den arren.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxe: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxe: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

1. Taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA/ALAVA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	06/2003	%	06/2002	%	Δ%	06/2003	%	06/2002	%	Δ%	06/2003	%	06/2002	%	Δ%	06/2003	%	06/2002	%	Δ%
HOTEL-EZTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	263.819	100	255.237	100	3	37.223	100	41.996	100	-11	104.901	100	101.134	100	4	121.695	100	112.107	100	9
Estatukoak	178.982	68	167.331	66	7	27.001	73	30.694	73	-12	69.623	66	68.006	67	2	82.358	68	68.631	61	20
Atzerrikoak	84.837	32	87.906	34	-3	10.222	27	11.302	27	-10	35.278	34	33.128	33	6	39.337	32	43.476	39	-10
Hiriburua	166.676	63	165.880	65	0	26.997	73	30.466	73	-11	72.630	69	72.249	71	1	67.049	55	63.165	56	6
Kostaldea	36.922	14	37.186	15	-1	-	-	-	-	-	11.669	11	12.412	12	-6	25.253	21	24.774	22	2
Barnealdea	60.221	23	52.171	20	15	10.226	27	11.530	27	-11	20.602	20	16.473	16	25	29.393	24	24.168	22	22
BIDAIARIEN SARRERAK	146.998	100	136.231	100	8	23.330	100	25.055	100	-7	57.202	100	52.489	100	9	66.466	100	58.687	100	13
Estatukoak	101.360	69	90.210	66	12	16.933	73	17.855	71	-5	39.932	70	36.645	70	9	44.495	67	35.710	61	25
Atzerrikoak	45.638	31	46.021	34	-1	6.397	27	7.200	29	-11	17.270	30	15.844	30	9	21.971	33	22.977	39	-4
Hiriburua	91.641	62	86.159	63	6	15.339	66	15.737	63	-3	39.484	69	37.459	71	5	36.818	55	32.963	56	12
Kostaldea	19.099	13	19.180	14	0	-	-	-	-	-	7.065	12	6.916	13	2	12.034	18	12.264	21	-2
Barnealdea	36.258	25	30.892	23	17	7.991	34	9.318	37	-14	10.653	19	8.114	15	31	17.614	27	13.460	23	31
B.B. EGONALDIA	1,79		1,87		-4	1,60		1,68		-5	1,83		1,93		-5	1,83		1,91		-4
BETETZE-MAILA PLAZAKA	46,88		48,91		-4	38,63		51,16		-24	45,87		47,97		-4	51,21		48,96		5
Hiriburua	49,46		53,77		-8	41,17		53,82		-24	48,62		53,36		-9	54,94		54,21		1
Kostaldea	54,48		50,43		8	-		-		-	45,12		45,22		0	60,26		53,52		13
Barnealdea	38,13		37,37		2	33,22		45,27		-27	38,54		34,32		12	39,88		36,54		9
BETETZE-MAILA GELAKA	57,51		61,73		-7	51,06		65,86		-22	58,10		63,47		-8	59,67		58,41		2
Hiriburua	61,22		68,64		-11	56,95		71,74		-21	61,82		69,83		-11	62,97		65,37		-4
Kostaldea	61,87		58,34		6	-		-		-	56,60		58,10		-3	64,63		58,48		11
Barnealdea	46,81		45,27		3	35,46		46,74		-24	47,40		44,12		7	50,84		45,61		11
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	15.036	100	14.982	100	0	2.258	100	2.645	100	-15	4.992	100	5.887	100	-15	7.786	100	6.450	100	21
Estatukoak	12.503	83	12.492	83	0	1.960	87	1.912	72	3	4.002	80	4.883	83	-18	6.541	84	5.697	88	15
Atzerrikoak	2.533	17	2.490	17	2	298	13	733	28	-59	990	20	1.004	17	-1	1.245	16	753	12	65
BIDAIARIEN SARRERAK	6.571	100	6.463	100	2	1.137	100	1.090	100	4	2.223	100	2.417	100	-8	3.211	100	2.956	100	9
Estatukoak	5.835	89	5.675	88	3	1.036	91	986	90	5	1.995	90	2.155	89	-7	2.804	87	2.534	86	11
Atzerrikoak	736	11	788	12	-7	101	9	104	10	-3	228	10	262	11	-13	407	13	422	14	-4
B.B. EGONALDIA	2,29		2,32		-1	1,99		2,43		-18	2,25		2,44		-8	2,42		2,18		11
BETETZE-MAILA PLAZAKA	21,96		23,66		-7	17,11		22,90		-25	23,37		29,16		-20	22,97		20,42		12
BETETZE-MAILA GELAKA	24,14		25,81		-6	19,44		26,47		-27	25,26		30,06		-16	25,33		22,84		11

Iturria: EUSTAT